

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA KARLOS I.aren HIRIBIDEKO TAO DELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Zerbitzu Orokorren Batzordean, hilabete honetan, bideratutako interpelazioaren ondorio da.

### JUSTIFIKAZIOA

Kexa asko aurkeztu dituzte Amara Berriko egoiliarrek Udalinfoaren eta beste bitarteko batzuen bidez, egoiliarrentzako aparkaleku gutxi daudela eta.

Alde horretatik, Karlos I.aren hiribideko zenbaki bakoitien aldea merkataritzako eremutat sailkatuta dago, Trafikoko Ordezkaritzako bulegoak lekuz aspaldi aldatu bazituzten ere Era berean, Gizarte Segurantzaren bulegoak ere lekuz aldatu dituzte Loiolako Erriberetara, eta horren ondorioz jaitsi egin da merkataritzako aparkaleku premia; izan ere, gestioak direla eta, jende mugimendu handia eragiten zuten bi erakunde horiek.

Gai horri dagokionez, abenduan, galdera bat egin genion, idatziz, mugikortasuneko zinegotzi ordezkari Pilar Aranari eta hau erantzun zigun: *“kontuan hartuta kale horretatik Trafiko ordezkari eta hor egin ohi diren izapideekin lotutako jarduerak desagertu egin direla, ulertzen dugu ez duela zentzu handirik merkataritzako TAO arauketari eustea. Ohiko arauketara (TAO mistoa) itzultzeak aukera emango lieke egoiliarrei laneko ordutegian aparkatzeko; beraz, aparkatzeko haien aukerak zabalduko lirateke”.*

Batzordean, udal gobernuari galdetu genion ea, beste auzo batzuetarako TAO aldaketa izapidetzen ari denez, Karlos I.aren hiribideko zenbaki bakoitietako egoiliarren erreibindikazioak ere hor sartzekoak ziren, are gehiago, kontuan hartuta abenduan igorri ziguten erantzuna bat zetorrela erreibindikazio horiekin.

Gure ustekabea Pilar Aranaren jarrera aldaketa izan zen, erantzun baitzigun ez dutela inongo aurreikuspenik kale alde horretako TAO arauketa aldatzeko, eta beraz, merkataritzakoa izaten jarraituko duela.

Horiek guztiak horrela, hau da nire

#### KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio egin ditzala behar diren aldaketak aparkaldi arautuaren zerbitzua (TAO) arautzen duen udal ordenantzan, Karlos I.aren hiribideko zenbaki bakoitien aldea egoiliarrek aparkatzeko izateko.

Izpta.: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.